


Eguzkiaren indarrez

30 metroko zabalera du, 210 kiloko pisua eta 45 kiloko garraio-ahalmena. 30.000 metroko altitudetan higitu ahal izango da 170 km/h-ko abiaduraz. Pathfinder izeneko hegazkin berria da eta aipatutako ezaugarriek ezer berririk esaten ez badute ere, hegazkin berezia da eguzkitiko energia soilik erabiliko baitu.



Argazkiko Pathfinder izeneko hegazkin berria berezia da, eguzkitiko energia soilik erabiliko baitu.

Prototipoa Kaliforniako Edwards basean egin dute eta hortxe ikusi da lehen aldiz hegan. AeroViroment erakundearen aspaldiko ametsa zen eta ikusmin handia eragin duenik ezin da ukatu. Militarrek, teknikoek eta hegazkin-konpainia komertzialek berebiziko interesa erakutsi dute proiektuare-

kiko. Ez da harritzekoa. Eskala edo geldiunerik egin gabe, higitze-autonomia handia izango du, erregaia hartu beharrik ez baitu izango. Honez gain, hegaletan ezarri zaizkion energi zelulei esker, 2.000 eta 8.000 watt bitarteko potentzia garatu ahal izango du. Bistan denez, erabilpen-eremua nahi adina zabal daiteke. Telekomunikaziorako seinale-gune higikorra, espioitza-zentrua edo ikerketa-gune bezala erabili daiteke. Ogi bidean,

bere burua erraz ordain dezakeen asmakizuna da.

Etorkizuneko jaurtigailu espazialak

NASA erakundeak ohizko produkzio-moduak baztertu eta enkarguzko lanak agintzeari ekin dio. Albistea aeronautika alorrean diharduten en-

presa estatubatuarren-tzat bereziki interesgarria gertatu da, milioi askotako egitasmoa jarri baitzaie eskura.

Gaur egun erabiltzen diren jaurtigailu espazialak ordezkatuko dituen etorkizuneko ereduak prestatzen ari dira jadanik, RLV izenaz ezagutzen dena, hain zuzen. NASA eta industriaren arteko lankidetzak teknologia berriak sustatzean gauzatuko da eta 1999an erabakiko da egitasmoak aurrera egingo izango duen ala ez.

RLV edo berrerabilgarria den espazio-automobila egiteak kostu itzela izango du. NASA eta EEBBetako Defentsa Batzordeak 100 milioi dolarretako aurrekontua erabili ahal izango dute aurten bertan probetarako erabiliko den X-33 ereduak sortzeko.

Jaurtigailu espazial berriaren itxaropen handia da. Garraio-kostuak murriztea da helburu nagusia eta horretarako zenbait aurrebalidintza ezarri dituzte. Jaurtigailu berria gidaririk gabe higitu ahal izango da eta begiz jotakoa betetzekotan, 2 tonako garraio-ahalmena gutxi gora-behera izango du. NASA eta sektoreko enpresen arteko elkarlana ez da gaur goizeko kontua. Oraingoan, ordea, prototipoak sortzeko agindua eman izanak lanerako aukera berriak eskaintzen dituela nabarmendu da. Edonola ere, erronka berriaren aurrean bel-

dur azaldu denik erabada. Proiektua lantzeak duen ikerketa- eta diru-kostua izan ere, Kongresuko ordezkariak 1999an hartuko duten erabakiaren menpe egongo baita. Ikerlariak diotenez, sortze beretik hiltzera kondenaturik dagoen egitasmoa izan daiteke.

Airbag-a motoetan

Egun merkaturatzen diren automobil berrietan, oinarrizko ereduak ere airbag-a daramate, eta oro har eskaintzen duten segurtasun-maila urtez urte hobetzen ari dela esan daiteke.

Motoetan, aldiz, ez da antzeko eboluziorik izan eta segurtasun-maila hutsaren hurrengoa dela esan daiteke. Egoera honi aurre egin nahian Munich-eko zenbait ikerlarik motozaleentzako airbag-a diseinatu du.

Aipatu airbag-a, puzten denean, bi metroko diametroa duen globoaren modukoa da. Talka gertatzen denean, kapadoreek globoa puztarazi egiten dute, globoak motozaleen gorputza inguratu egiten duelarik. Horrelako ideia, abioi-pilotuak kabinatik kanporatzen diren erako dituzten babes-bitartekoetatik atera dute injineru alemanek.

